



## 2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



**AUZO:** ARRAGUA

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-08	19:00	20:30

**BILDUTAKOAK:**

<b>Udal ordezkariak:</b>	<b>Jexux Leonet, Olga Leibar, Agustin Lekuona, Goratz Gezala</b>			
<b>Herritarrak:</b>	Euskaraz: 8		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 5	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 2	51-65 urte: 3	>66 urte: 3

**AKTA:**

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Zinegotzien aurkezpena eta bileraren egitura azaldu da.
<b>2020 urtea</b>	2020ko egoera azaldu da. Covid-19aren eragina eta egindako lanak. Langabezia igo den galdetzen dute, hasieran %6,4koa zen eta orain %8,5 dago, handitzea aurreikusten da.
<b>2021eko aurreikuspena</b>	2021ko aurreikuspena azaldu da. Arizmendienean erabilpena nola izango den galdetzen dute, adierazten da nola bai lorategia eta bai beheko solairua gauza dinamikoak egiteko guneak izango diren eta beste zonalde bat museo estatikoa bezala ikusten dugula. Landetxeko eraikinaren obra hilabete batez zergatik geratu den azaldu da. Lurraren mugimenduak aztertzen ari dira eta emaitza horien arabera obrarekin nola jarraitu erabakiko da.
<b>Auzoa</b>	Aipatu da oraingoz baztertuta utzi dugula gGanboxako txakurrentzat eremua eta baita ere parkearen proiektua, baina aurrera eramateko asmoa dagoela esaten zaie, ondo hartzen dute. Uretxeko etxeen proiektuaren inguruan galdetzen da. Plano berria aurkezten da eta azalpenak ematen dira. Proiektua aurrera eramango dutenekin



## 2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>negoziatu nahi dira nondik norakoak, etxe kopurua gutxituz, beste modu batera eraikiz... Auzotarrekin hartu emana mantenduko da prozesuan zehar.</p> <p>Frontoian dagoen zabor ontzia oso zikin egoten da eta kentzeko eskaera egiten da, nahiz eta aldi berean kentzearen zalantzak agertzen diren. Talaiako garbigunean eman den aldaketa positiboa dela aipatzen dute.</p> <p>Lartzabal etxadian jendeak edozein lekutan uzten du kotxea, aparkalekua bertan egonik.</p> <p>Eskertu da igogailua jarri izana. Auzotar batek aipatu du igogailua eskatzen zuen jendea ez dela azaldu aurten bilerara.</p> <p>Larrezabaletan bi eskolen artean, goiko eskola eta kale amaierako eskola artean, kotxeak abiadura handian ibiltzen dira. Aztertuko da egoera udaltzainekin.</p> <p>Abiadura Handiko Trenaz galdetzen da. Lehen Talaiako paretik pasatzen zen eta orain Mamuteko bulegoen paretik pasatzen da, nahiz eta garbi geratzen den proiektuaren egingarritasuna ez dela segurua. Udalak alegazioak aurkeztu zituen udan.</p>
--	--

### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	<b>8,57</b>
bilera ongi gidatu da	<b>8,57</b>
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	<b>8,43</b>
Auzotar kopurua	<b>1,71</b>
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	<b>6,43</b>
Saioa probetxugarria izan al da?	<b>8,14</b>
Egunaren egokitasuna	<b>7,57</b>
Orduaren egokitasuna	<b>7,71</b>
Lekuaren egokitasuna	<b>7,50</b>